

IZARRAK

Nortasunaren zein etorkizunaren ikur

NAIA ARANTZAMENDI

Kazetaritzaren mundutik datozen Iñigo Puertas eta David Taberna El Diario Vasco egunkariko kideak dira euskal nortasunaren erradiografia bat eskaintzen duen *Izarrak* dokumentalaren zuzendariak.

Filmaren ildo jarraitzeko abiapuntua baleak harrapatzen zituzten arrantzaleetan ezarri duzue.

Iñigo Puerta: Duela 500 urte, gure marinelak izarrei begira gidatzen ziren. Gaur egun, nolabait, beste izar batzuk dira jende asko euskal sukaldaritzara erakartzen eta bidea erakusten diotenak. Paralelismo hori asko gustatzen zitzaigun. Duela bost mende, abangoardia izan ginen nabigazioan eta baleen ehizan, eta duela 50 urte berriro izan ginen abangoardia Euskal Sukaldaritzaren berriarekin. Denboran oso urrun dauden bi une dira, baina berrikuntzarako, abenturarako eta bilaketarako izaera berak lotzen ditu.

Nortasunaren erradiografia bat egiteko bide izan duzue sukaldaritzan.

David Taberna: Euskal Sukaldaritzaren 50. urteurrenarekin bat eginez, iraultza hura ospatu nahi genuen, baina, batez ere, zergatik gertatu zen hemen galdetu nahi genion geure buruari. Eta horrek, ezinbestean, lurraldera, produktura eta bizitzeko eta elkarrekin harremanetzeko dugun modura garamatza.



Azken batean, sukaldaritzak nor garen kontatzeko balio digu.

Identitatearen osagarriak askotari-koak dira, eta aldagarriak, aldi berean?

D.T.: Noski. Gizartea, teknologia eta elkarrekin harremanetzeko moduak aldatzen dira, baina harrigarria da zenbat gauzak irauten duten ikustea. Duela 500 urte, arraina parrillan gaur egun egiten den oso antzeko moduan egiten zen, ziurrenik. Askotan interesatzen zitzaigun eraldaketaren eta jarraitutasunaren arteko bizikidetzaren hori: eboluzionatzen

dugu, baina badira mendeetan zehar irauten duten keinuak, jakintzak eta egiteko moduak.

Jatetxe ezagunetako sukaldeetan sartu zarete, baita etxe partikularretako sukaldeetan ere.

I.P.: Hain zuzen ere, elkarriketa hori bilatzen genuen. Alde batetik, chef handien diskurtsoa dago, exijentzia gorenari, berrikuntzari eta irudimenari lotuta. Eta, bestetik, amonen sukaldeak, non egia, memoria eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako jakintza handia aurkitzen dugun. Ez genituen bi mundu ho-

riek elkarren aurka jarri nahi, lotu baizik. Izan ere, gure goi-mailako sukaldaritzaren zati handi batek tradizio horretatik edaten du, eta, nolabait, bi diskurtsoek laguntzen digute nondik gatozen eta norra joan gaitezkeen ulertzen.

Izarren atzean dagoen lana eta lan-gileak fokuan jarri dituzue; izen, abizen eta jatorri.

D.T.: Izarren atzean pertsonak daudelako. Euskadi gastronomiaren nolabaiteko 'Eldorado' bihurtu da, eta leku askotako jendea erakartzen du, ikastera, aurrera egitera edo amets baten atzetik

etortzen dena. Batzuentzat sukaldaritzan anbizio bat da; beste batzuentzat, berriz, beren bizitza hobetzeko aukera. Aniztasun hori gaur egun gure sukaldeetan eta tabernetako barretan dago, gure errealitatearen parte da, eta aurpegia jarri nahi genion.

Etorkizunaren gaineko kezka mahai gainean jartzen du filmak. Norantz goaz?

I.P.: Lehen sektorearen eta belaunaldi-errelebo faltaren inguruko kezka nabarmena dago. Ezin dugu aparteko sukaldaritzak bat izan nahi, aparteko produktak ekoizten dituztenek beren lanetik duintasunez bizi ezin badute. Lanbide horiek errentagarritasuna, aitortza eta etorkizuna behar dituzte. Beharbada, behar horrek berriro bultzatuko gaitu berritzera eta geure burua berrasmatzera, baina identifikatzen gaituen hori galdu gabe.

Donostia Zinemaldian aurkeztuko duzue filma. Zer suposatzen du?

D.T.: Guretzat, oso baliozkatze garrantzitsua da. *Izarrak* kazetaritzatik sortu da, baina begirada hori hizkuntza erabat zinematografiko batera eramanez izan dugu. Zinemaldiak filma hautatu eta maila honetako nazioarteko jaialdi batean kokatzea apustu horren errekonozimendua da. Harrotasunez betetzen gaitu, baina, batez ere, ikus-entzunezko kazetaritzaren egiteko modu hori esploratzen jarraitzea animatzen gaitu.

LA MALETA DE ALEX

Ondare artistikoaz haratago, Alex Angulo

N. A.

Maleta bat egiteak denbora bat eskatzen du, zer sartu eta zer ez erabaki bat izan ohi da. Elementu edo objektuez haratago, nahiak, gogoak, beldurak, ilusioak... askotarikoak gorde daitezke maleta batean. Alex Angulo aktoreak bere ibilbide pertsonal zein profesionalari lotutako dokumentuak, objektu zein argazkiak maleta batean gorde zituen, orotara, 5.000 bizipen zein oroitzapen.

Dodók, Anguloren alabak, bere aitaren maleta eskuartean hartu eta hura ezagutzeko bidaiari ekingo dio. Maletan dauden objektuak atera eta banan-banan jabeen bueltatuz joango da. Horrela, aita maite zuten horien begietatik ezagutuko du, eta izan ez zituzten elkarriketak zabalduz joango dira.

Alejandro Cortés Calahorra zuzendariak *Refugios* (2015) filmean Alex Angulo aktorearen partaidetza izan zuen.



Alejandro Cortés Callahorra, *La maleta de Alex* filmaren zuzendaria.

ENRIQUE CIDONCHA

“Bere baiezkoea jasotzeko zorte ikaragarria izan nuen, eta baita zorte txarre-na ere, mundo mailako pantailetan ikusi zen Alexen azken filma izan zelako, hain zuzen ere”. Angulo auto istripu batean hil zen 2014an, eta zuzendariak

ezin izan zion aktoreari filma erakutsi. Arantza horrek sortutako emozioetatik abiatzen da *La maleta de Alex* filma egiteko grina.

Filmak bi maleta jartzen ditu erdigunean. Batetik, aktoreak gordetako

dokumentu eta objektuak biltzen dituen, hala nola, ibilbide profesional baten erakuslehoi izateaz gain, belaunaldi baten kultur historiaren parte den lekukotza. Eta bestetik, Anguloren bizitzaren parte izan diren eta filmean agertzen diren guztiek bere gain daramatzaten maletak.

Maleta eta objektuak estruktura gisa hartu eta *road movie* batean barneratzen gaitu emozioz jositako kontakizunak. Zuzendariaren helburua pertsonaia publikoaren atzeko pertsona erakustea zen, eta horretarako hamaika modu dauden arren, Anguloren beraren ahotza erabili du Cortesek pertsona ezagutzeko bide gisa.

Antzerkian, filmetan zein telesailetan egindako agerpenetan ikusiko dugu aktorea, kulturaren historiaren testigantza ukaezin bilakatuko den dokumentu bat eraikiz, baina baita orainaren eta iraganaren arteko etengabeko elkarriketa bat sortuz. “Aktorearen historia intimoa eta kulturaren historia kolektiboak bat egiten dute filmean”.

Hala, bi ildo nagusi uztartzen ditu filmak, publikoarekiko hurbiltasun ukaezina eragiten zuen aktorearen ibilbide profesionala, eta Alex Anguloren bizitza pribatua zein eraiki zituen harremanak. “Filmaren gairik garrantzitsuen

intimitatean Alex zen pertsonaren eta publikoki ezagutzen zen pertsonaiaren arteko kontrastazioa da”.

Hortaz, *road movie* gisa hasten dena, ez-fikziozko esperientzia bat bilakatzen da. Dokumentalaren eta fantasiazko artean, Dodók eskuan daraman maleta antzoki bilakatzen da, eta gutxinaka, bere aita nor zen deskubrituz joango da. “Alexen ibilbide profesionala jendearengandik hurbil sentiarazten zioten antzezlan zein telesailen eta ikur bilakatu zuten film handien arteko balantzea bilatuz igaro zen. Hortaz, *road movie* fisiko eta errealista egin nahi nuen, baina baita alderdi oniriko edota fantastikoa izatea nahi nuen”.

Alex Angulok 2010ean Zinemira Saria jaso zuen eta 2026an bere pertsonari, bere ibilbideari eta berak utzitako horri guztiari aipamen egiten dion dokumentala Donostia Zinemaldiko Zinemira sailean filma aurkezteak zirkulu baten itxiera suposatzen duela argitu du zuzendariak. “Niretzat zein jende askorentzat zirkulu baten itxiera suposatuko du Donostian eskaintzeak. Alexen istorioa zinemaren eskaintzea, arte kolektibo bat den hori bide erabilita, eta berak maite zuen hirian, zoragarria izango da. Donostiak eta Alexek elkar miresten zutela esango nuke”.